

Prentsa oharra

Nota de prensa



‘Goizaldiak’ adineko pertsonentzako eguneko arreta zerbitzua berriro ere martxan da

*Autonomia eta sozializazioa sustatzeko zerbitzua eskaintzen diete adineko pertsona
ahulei*

Udaleko Gizarte Ekintza sailak kudeatutako ‘Goizaldiak’ zerbitzua etenda egon ostean, berriro ere arreta eskaintzen hasi da hiriko 4 zentroetan. Eguneko zerbitzu honen bidez, adineko pertsona ahulen autonomia mantentzen lagundu eta adinekoari bere ohiko giroan iraunaraztea lortu nahi da, bai eta haien sozializazioa bultzatzea ere, dagokion kasuetan, isolatze egoerak konpentsatzeko. Hainbat talde jarduera egiten dira, hala nola gimnasia egokitua, erlaxazio tailerra, esku terapia, tailer ludikoak, memoria tailerrak, ikus-entzunezkoen tailerrak bai eta, bizi kalitatea hobetze aldera, zahartzte aktiboa sustatzeko eta harreman sozialak izateko beste zenbait jarduera ere.

Gizarte Ekintzako zinegotzi Aitziber San Romanek zerbitzua berriro eskaintzearen garrantzia azpimarratu du: “oso berri ona da, eguneroko bizitzan zailtasunak izan ditzaketen adineko pertsonen berriro ere horrelako zerbitzua eskaini ahal izatea etenaldiaren ostean. Gehienentzat ‘Goizaldiak’ sozializatzeko aukera paregabea da”.

Zerbitzua astelehenetik ostiralera ematen da, goizeko ordutegian, 10:00etatik 13:00etara eta urte guztian zehar honako 4 egoitzetan: Egiatarra Elkartea, Bidebietako Guardaplata Elkartea, Altzako Nao Etxea Elkartea eta Groseko Udalaren lokalean (Nafarroa Behera 7).

Martxoaren 12tik, Jubilatuen Elkarten itxierarekin batera, zerbitzua bertan behera geratu bazen ere, konfinamenduan ‘Goizaldiak’-eko erabiltzaileen jarraipena egin da, kontaktua mantendu dute eta besteak beste, jarduerak burutzeko materiala bidali zaie. Iaz 40 bat erabiltzaile izan zituen batez beste. Zerbitzua erabiltzeko betekizunen artean; 65 urte gora izatea, autonomia edo mendekotasun moderatua izatea, Donostian erroldatua egotea, osasuna eta gizarte harremanak hobetu edo mantendu nahi izatea eta aisialdiko jardueretan parte hartu nahi izatea dira.

Prensa oharra

Nota de prensa



Aitziber San Romanek gaineratu duenez, behar bezala eta baldintza egokietan irekitzeko Osasun Publikoko osasun protokoloak eta neurriak kontuan hartu dira; garbitasuna indartuz, aireztapena bermatuz, betebeharren informazio kartelak ipiniz, mahaiak kendu dira, jarduerak egokitu dira, ezingo dira gauzak eta jokoak partekatu, besteak beste.

[Eskuorria 'Goizaldiak'](#)